

# Aita-alaben arteko harremanean sakondu du Barandiaranek, 8oko hamarkada hondoan jarrita

Bilboko Euskalduna ontziolatik jaiotako lan gatazkak eta 8oko hamarkadako egoera sozio-politikoak inguratuta, aita-alaba biren arteko harremana hartu du oinarri Gotzon Barandiaranek «Errotik» estreinako eleberrian.

Ariane KAMIO | DONOSTIA

Gotzon Barandiaranek (Larrabetzu, 1974) hamar urte zituen 1984an Euskaldunako ontziolan izandako kaleratzeek sortu zituzten zurrumbilo eta lan gatazkak jazo zirenean. Hamar urteko mutil koskor baten begiradaz bizi izan zituen gertakari haiek, Deustuko zubian langileek aurrez aurre Polizia espainolarekin borroka egiten zutenekoak. Irudi horrek luzaroan iraun du bizirik, ordea, bere izaeraren baitan, eta garai hura, 8oko ha-

markada, lan gatazkak eta egoera sozio-politikoak, izan dira «Errotik, bere lehen nobelaren hondoko lokarria osatzen dutenak.

Kontakizunaren muina, nolahi ere, irakurketa sozialetik harago doa, eta giza harremanetan du oinarri nagusia; aita-alaba biren arteko elkarrekintza landu du sakonago. «Aita (Luis) eta alaba (Lorea), elkar izugarri maite duten arren, euren hartueman horretan ez diote elkarri maitasun hori sasoz aitortu. Aita, ordea, hiltzear da, minbiziak


jota, eta azken une horiek baliatzen dituzte aitortza eza horri erremedioa jartzeko», nabarmendu zuen Barandiaranek atzo. Hala, orain urte batzuk idazle larrabetzuarrak bere aita galdu izana eta txikitako orotzapen haiek elkartzeko gakoak aurkitu ditu lan horretan.

## Fikziozkoak denak

Barandiaranek («Arrakalak», 2004 eta «Katamalo», 2007) ez dio gehiegi erreparatu kontakizunaren sinesgarritasunari, izan ere, asmatuak dira bertan agertzen diren pertsonaia guztiak. «Batzuek oso dogmatikoak dirudite, iritzi politiko zurrunkoak dira, baina beste aspektu batzuek haien izaera oso literario bilakatzen dute».

Literaturak berak oso ausarta izateko aukera ematen omen dio idazleari, «bizitzan egitera ausartzen ez garen gauzak burutzeko aukera ematen baitigu».

8oko hamarkadako jazoerak dira kontakizun nagusiaren lagungarri, bai egoera sozio-politikoari dagokionez, baita kulturari begira ere. Bere iritzi, 70eko hamarkadan jaiotako jende gutxi idazten du hurrengo hamarraldian izandako kultura eztearen inguruan, eta berarengan itzelezko eragina izan zuten kultur arloko gertaera horiek biltzen ere saiatu da Susak kaleratutako eleberrian.



Barandiaran, atzo, Donostiako Udal Liburutegian. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

# Maitasun poemen bilduma ondu du Karlos Linazasorok «Gaur orain da betiko» lanean

A.K. | DONOSTIA

Maitasun deklarazio bat, bizitzaren aldeko adierazpen bat edo maitasuna berrasmatzeko beharraren erantzun gisa har daiteke Karlos Linazasororen azken lana, «Gaur orain da betiko» (Erein) poesia liburua.

Hirurogeita hamar olerkitan, 50 urteren bueltan dabilen idazlea maitasunaz nola aritzen den erakusten du poetaren eta bere maitalearen arteko «elkarriketaren» bitartez.

«Liburu sentsual bat egiten saiatu naiz. Bost zentzumenekin irakurtzeko modukoa da, arrazoiarekin baino gehiago.

Emakumeari eta haren gorpuztari gorazarre egiten zaion heinean, ukimenarekin irakurtzeko liburua da», esan zuen. Poesiaren azpian, «dagoeneko bueltan datorren nerabearen begirada dago», erotismoaz ziprztinduta, «baina oso modu sugerentean, agerian utzi gabe».

## Gazteengan zaletasuna piztu

Nahiz eta publiko orokorrari zuzenduta egon, Linazasorok (Tolosa, 1962) gazteenganako hurbilketa egin nahi izan du. Hala, poema bilduma «ulergarri» bat egiten saiatu da, «lorezainak lore bakoitza kimatzen duen bezala, poesia bakoitzari erreparatu

eta haiek ere banan-banan kimatuta», gehiegizko metafisika eta metafora konplikatuaq baztertuz.

Poemak baino abestiak ere badirela iritzi dio, erritmoari eta musikaltasunari garrantzia berezia ematen baitio. Egitura zirkularra eman dio, hortaz, ale berriari.

Gazteen artean poesiarako zaletasuna piztu nahi du idazle tolosarrak. «Neruda, Machado edo Miguel Hernandezen olerkiak irakurtzen dituzten moduan», euskarazkoak ere irakurtzera bultzatu nahi ditu. Hala, berak sortutakoa «zubi liburu» gisa ikusten du.



Uribe eta Izagirre, parez pare. Anartz BILBAO | ARGAZKI PRESS

# Hamar urteren ostean, «Bar Puerto»ra azkenekoz itzuli dira Uribe eta Izagirre

A. BILBAO | BILBO

Galtzear den bizimodu baten testigantza jaso eta etengabeko eraldaketa bizi duen herria bideoan jaso zuten orain hamar bat urte Josu Izagirre zinegileak eta Kirmen Uribe idazleak, honen amonaren etxea eraistekoak zirela-eta.

Kezka sozial hartatik «Bar Puerto» jaio zen gero, ondarrorren lanari Mikel Urdangarinen musika gehituta –Gaztelupek disko batean jaso zituen kantuak–. Eta iaz, ikuskizunak hamar urte betetzen zituela-eta, Bilboko Bidebarrieta liburutegian –poesia astea zela-eta– azken aldiz eman eta grabatu egin zuten, orain Elkarren liburu DVD batean argitaratu duten emankizuna –zaleek eskatuta–.

«Bar Puerto» bertan ageri diren testigantzek osatzen dute –dio Uribe–, artista atzean

utzita». «Bazterreko ahotsak» azpigitulu duen lanak, Uribe idatzitako diario asmatu batek harilkatzen ditu Omar Sampoo, Josu Urresti, Eli Ituarte, Emilio eta Agustin Lopez, Maximinon Fontan, Marian Etxabe eta Unai Badiolaren testigantzak (arrantzaleak, etorkinak –galziarrak lehen, afrikarrak orain–, heroina garai latzak eta hiesa... XX. mendearren kronikatxoak) –argazkiak, ederrak, Oier Ituartek egin ditu–, tarteka olerkitxoak edo Urdangarinen kantuak dira. Epilogoak Juan Carlos Perez musikariak idatzia da, eta euskarazko testuak ingelesez eta gaztelaniaz ere emanak dira liburuan.

Ondarroa erdigune da lanean, «baina istorio globala kontatzen du, Eskozian edo New Yorken izan zitekeenaren antzekoa, eta han ere hunkitzeko gai dena».

zurekin sintonian  
geroz eta gehiago

5 URTE

urteurren festa  
**ARRASATE**<sub>n</sub>

GAUR, goizeko 11:30etan hasita

Udaletxeko Plazan zuzeneko emanaldia  
pintxoak, sagardoa, umeentzat jokua...  
Herri Bazkaria  
eta gauean, kontzertua

BEREZIARTUA  
laguntzailea

infozazpi  
IRRATIA